

## 1.26 Irakurtzeko ohituen gainbehera





1.27 Holokausto oharrezina

UHN MOTZAREN ESPEKTROA KORRITZEA  
ITSASO ZAHAR ETA ULERGAITZ BATEN ERTZEKO  
HONDARTZAN PASEATZEA BEZALAKOA DA



ITSASO ETA KORRONTEEN APETAK  
ITSASERTZERA EKARRITAKO IZAKI BITXIEN  
AZTARNAK TOPATZEN DITUQU NOIZNAHI

BZZZZ...  
KRAK... BZZZZ...  
NEW YORKERA  
DOAZEN BISITARIAK...  
BZZZ



ASPALDI AHAZTUTAKO KANTA ZATIAK, URRUNEKO  
AHOTSAK, ERROMANTIZISMO BERANKORREKO  
SINFONIEN OIHARTZUN DESITXURATUAK,  
EZTABAIDA SUTSUAK HIZKUNTZA EZEZAQUNETAN

FLY ME TO THE MOON  
FLY ME TO THE MOON  
FLY ME TO THE MOON



ETA, LANTZEAN  
BEHIN, BERRI  
KEZKAGARRIAK,  
ESTATIKAK ETENA  
IZAN ARREN  
HARRIGARRIRO  
ARGIA DEN  
AHOTSAK EMANDA

BZZZZ...  
BI TRAMANKULU  
TERMONUKLEAR... BZZZZ...  
HIRIAREN EKIALDEA  
BETE-BETEAN HARRAPATU...  
BZZZZ... KRAK






## 1.28 Aberrazio elektromagnetikoa





## 1.29 Hitzen astuntasun jasanezina







### 1.30 Grabitazioaren suntsitzea

LEOPOLDO ETA ISIDORO NAZKAK LIBURUAK ETA IDAZKUNTZA AZTERTZEARI ESKAINI DIOTE BIZITZA



BADAKITE LIBURUEN PISU FISIKOAK, BALANTZA BATEK NEUR DEZAKEENA, ZERIKUSI TXIKIA DUELA BERE BENETAKO PISUAREKIN



POLTSIKOAN SARTZEKO MODUKO POESIA LIBURU BATEK ZORTZI LIBURUKIKO EPISTEMOLOGIA TRATATU BATEK BAINO PISU HANDIAGOA IZAN DEZAKE

BADAKITE, HALABER, IDAZLE BATZUEN LAN OBSESIBOAK DENTSITATE IKARAGARRIZKO PRODUKTUAK SOR DITZAKEELA



IDAZTEA EZ DA ZAILA. ALFERRIKAKOA KENTZEA DA ARAZOA

LIBURU HORIE-TAN, GRABITAZIO ERAKAR-PENA HAIN DA HANDIA, NON HAUTSI EGITEN BAITIRA SINTAXIAREN ARAUAK



EZINBESTEKOA EZ DEN GUZTIA ORRITIK EZABATZEA



LIBURUAREN  
INPLOSIOAREN  
ERAGINEZ,  
EZEZTATU EGITEN  
DIRA HITZEN  
ARTEKO TARTEAK

KOMUNIKAZIOA  
POSIBLEA OTE DEN GAL-  
DETZEN DIOT BATZUETAN  
NEURE BURUARI



BAITA LETREN ARTEKOAK ERE

TIRA... GUK  
ELKAR ULERTZEA  
LORTZEN DUGU



HARIK ETA, AZKENEAN, ZULO BELTZAREN BALIOKIDE  
LITERARIOA BILAKATZEN DEN ARTE: GORPUTZ TRINKO BAT,  
HAIN TRINKOA, NON BERTATIK EZ BAITA BATERE ESANAHIRIK  
JALGITZEN, ZENTZUAREN SUNTSITZE ERABATEKOA

BAI, BAINA GU  
EZ GARA ADIBIDE  
ONA, GURE IZATEA  
BERA ZALANTZATAN  
JARTZEN BAITUQU



LIBURU MIRESGARRI BAT, UNIBERTSOKO SEKRETU  
GUZTIAK BILTZEN DITUENÁ BAINA EZER AGERTZEN EZ  
DUENA

NIK EZ DUT,  
ORDEA, NIRE IZÁTEAZ  
ZALANTZA EGITEN: MINA  
DUT GILTZADURETAN,  
BERAZ, BANAIZ